


EUSKARA

Euskarak etorkizun oparoa du informatikaren alorrean



Ikasgai guzti-guztiak euskaraz egiteko aukera dute Informatika Fakultateko ikasleek.

tatean bertan ikasle izandako ikasleak dira; adibidez, Olaitz Arbelaitz. «Ni hasi nintzenean», azaldu digu, «lehenengo urte biak baino ezin zitezkeen osorik euskaraz egin, baina oso gutxi ginen euskaraz matrikulatzen ginenak». Hori errotik aldatu da: egun, ikasleen %35 matrikulatzen dira euskaraz ikasteko. Lehenengo ikasturtean 100dik gora izan dira aurtan (sei taldetik bi).

Ikerketa vs. merkatua

Unibertsitateak, profesionalak gertatzeaz gain, ikertzaileak trebatzea ere badu helburu. «Gurean, euskaraz ikertzen diharduten taldeak ere badaude» zehaztu du Alegriak, fakultatearen euskal aukera norainokoa den azpimarratu guran edo. Dena dela, ikasketak amaitzean, arin egiten dute ikasleek merkaturako jauzia, eta horrek mugatu egiten du ikerketan jardun gura dutenen kopurua. «Lan poltsa dugu fakultatean», adierazi digu Alegriak, eta ikasle asko ikasketak amaitu aurretik ere ari dira lanean». Euskaldunek abantaila dute: zenbait enpresak, beren beregi, ikasle euskalduna eskatzen dute. Hori omen da euskaraz edo gaztelaniaz ikastearen artean dagoen alde bakarra. «Informatikaren alorrean jarduteko berezko hizkuntza ingelesa da», dio Alegriak. Ikasleek badarabilte ingelesa, bibliografia irakurtzean, eta Interneten dabilzala ere bai. «Bitartekoei dagokienez», gaineratu du Alegriak, «berdin da gaztelaniaz ala euskaraz ikasi». Horren jakitun direnez, gero eta euskaldun gehiagok ikasten du euskaraz.

Duela hamabost urte irakasle bi hasi ziren, eta dagoeneko erabat finkaturik dago euskarazko eskaintza fakultatean

Mikel Basabe • Donostia

DONOSTIA aitzindari izan zen informatika ikasketak eskaintzen: Bartzelona eta Madrilekin batera, Donostian ere jarri zen, duela hogeita bost urte. Garai hartan, jakina, espainolez baino ezin zitezkeen ikasi, eta horrela izan zen beste hamar urtean, harik eta irakasle talde batek egoerari buelta emateko unea zela pentsatu eta Iñaki Alegria eta Kepa Sarasola euskaraz irakasten hasi ziren arte. «UEUn ere aritzen ginen», azaldu digu Alegriak, eta Informatika Fakultatean euskarazko ikastetako eskaintza beharra zela iritzi genion», gaineratu du. Hasiera, ohi legez, ez zen erraza izan: ikasle gutxi (berrogei inguru), irakasle bi baino ez, eta jarduna —hasi berri den guztietan legez— zaila. Baina eskaintza finkatuz joan ziren, eta, apurka-apurka, lortu zuten euskarazko ikasgaiak fakultatearen aukera ofizialaren esparru handiagoa hartzea.

Orain, oso-osorik euskaraz egin daitezke lizentziatura-ikasketak; lehenengo egunetik azken egunera arte. «Gainera», ziurtatu du Alegriak, «ingeniaritza guztiak hartuta, geu gara euskaraz ikasgai gehien eskaintzen dugunak». Hori horrela, ez da harritzekoa Alegriak argi izatea «eus-

karaz ikasteko aukera finkaturik» dagoena, eta aurrera begirako desafioa bestelakoa dena: «Gero eta ikasle gehiago matrikulatzea da orain helburua». Finkatze horren baitakotzat har daiteke, zalantza barik, datorren urtetik aurrera fakultateak eskainiko duen Sistemetako

Informatikan Ingeniaritza Teknikoa hiru urteko ikasketak.

Finkatzea lortzeko, oster, beharrezkoa zen euskaraz irakasteko gai ziren informatikariak trebatzea: irakasle birekin hasi zen ibilaldiak 40 ditu orain, 26 doktore. Irakasle diharduten asko fakul-

«Euskaraz ikasteko aukera finkaturik dago; orain, gero eta ikasle gehiago matrikulatzea bultzatu nahi dugu»

«Merkatuak oraindik ez du barneratu guk zer eskain diezaiokegun»

Informatika ikasleek ere badute zer esan. Beharbada, ez horrenbeste euskaraz ikastearen inguruan, eurentzat aukera naturala izan baita, hasieratik nahiago izan dutena. Batez ere, fakultateak eskaintzen duenaz egin dute bera: gustura daude. Azpiegitura ona du —hogeita lau ordutan zabalik dagoen ordendore gela, adibidez—, eta ikasleek praktika gehiago egiten dituzte plan berria indarrean denetik. Gehiago arduratzen ditu etorkizunak, behar egiteko aukerak. Gorka Usabiaga,

Eduarne Larraza, Aitor Garate, Ander Korta, Amaia Hidalgo, Eduarne Martinez eta Maialen Gonzalez izan ditugu solaskide, eta denek bilatu gura dute «interesgarria» den beharren bat. Horren gainean, baina, badute ardura, arrazoizkoa: «Merkatuak ez daki zer eskain diezaiokegun; ez daki ingeniariak garela, eta lanbide heziketako ikasle batena egiteko eskatzen digu sarritan», adierazi du Usabiagak. Horrekin batera, arduratzeko beste arrazoi bat: gero eta gehiago dira Euskal Herri-
kanpora joaten diren informatikariak. Horretarako dagoen arrazoiak ez da besterik, informatika enpresak biltzen ari direla baino: sektorea kontzentratzen ari da, eta enpresa handien egoitza ez da Euskal Herrian geratzen, gure herrialdetik kanpora dauden hiriburu handietan baino. «Enpresekin, lan interesgarriak eta, sarritan, ondoen ordaindurikoak ere egiten dute alde», gaineratu dute ikasle baino gehiago dagoeneko informatikari diren hauek.